



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Larunbata
2010-05-15

VIII. URTEA 2.001. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Merkatari elkarte berriko ordezkariak izen berria eskuetan dutela atzo Zerkausion. I. TERRADILLOS

'TOLOSA & CO' AURKEZTU DUTE

TOLOSA Igarondo eta Alde Zaharra Dendak merkatarik elkarrekin bat egin dute; atek zabalik dituztela azaldu dute 2

JON ESANDI MAGOA

«Ez naiz magia biziko, baina magia beti edukiko dut hobby bezala»

IRURA Gaur, 18:00etan, 13 urteko magoa ikusteko aukera egongo da Kultur Astean 4



I. TERRADILLOS

Baserritarren Eguna ospatzen lehenak alkizarrak izan ostean, gaur hainbat herri gehituko dira

SAN ISIDRO EGUNA Alkizan txikienek Ginkana egin zuten bizikleta gainean; gaur eta bihar ere hainbat ekitaldi ospatuko dituzte bertan 3



Alkizako haurrek ginkana bizikletaz egin zuten atzokoan. A. IMAZ

'Tolosa & Co' da herriko merkataritzaren marka berria

Ekonomia » Egungo bi merkatarik elkarrekin izen batean batuko dira; ostalaritza eta zerbitzuak ere elkartzea nahi dute.

INIGO TERRADILLOS

Tolosako merkataritza izen baten pean bilduko da aurrerantzean. *Tolosa & Co* izenarekin bataiatu dute, eta deitura edo marka horren barruan herriko bi merkatarik elkarrekin, Igarondo eta Alde Zaharra Dendak, bilduko dira. Merkatarik elkarrekin ordezkariek, dena den, hori baino haratago joan nahi dute, eta *Tolosa & Co* herriko merkataritza, ostalaritza edota zerbitzuen batura izatea dute helburu, «guztien artean indarrak batuz, gure bezeroei zerbitzu hobea emango diegulako».

Herriko bi merkatarik elkarrekin batzea errealitatea dela esan daiteke, beraz. Estatutu berriak onartzea eta egungo elkarrekin desageretzea falta da ofizialki elkarrekin bakkarra egoteko, baina hori egikaritu bitartean ere, izen berriarekin jardungo dute merkatariek. Hain zuzen ere, izen berriaren aurkezpena egitearekin batera, atzo banatu zieten merkatariei irudi berria, eu-

ren saltokietan jartzeko gombita eginez.

Irudi «baikorra eta irekia»

Merkatarik elkarrekin ordezkariek *Tolosa & Co* «Tolosako merkataritzaren nortasunaren ikur» izango dela diote. «Besteengandik desberdindu, eta era berean, konpetentziarengandik babestuko gaitu». Halaber, berrikuntza eta gertukotasuna emango diola komertzioari diote: «irudi baikorra eman nahi dugu, guztiak parte hartzeko irekia eta anitza izatea nahi duen elkarrekin izango baita».

Izenari dagokionean, batetik herriarekin identifikatzeko *Tolosa* jarri dute, eta bestetik, ingelesezko *& Co*, «merkataritzarekin erraz uler daitekeena». Atzizki horrek, gainera, beste hainbat esanahi ere izan ditzake: «konpainia, komertzioa, kolaborazioa, kooperazioa, konfiantza... hori guztia izatean nahi dugu», azaldu dute Tolosako merkatariek. Izena eta irudi berria *claim* batek lagunduko du unean uneko ekimenaren arabera.

«Indarrak batzearen beharra»

2006an sortu zen Komertzio Foroa «herriko merkataritza sustatzeko helburuz». Bada, merkatarik elkarrekin ordezkariek adierazi



Merkatarik elkarrekin ordezkariek, izen berriaren aurkezpenan, atzo, Zerkausian. I.T.

dutenaren arabera, egin dituzten bileretan eta azterketetan «argi» geratu da «lanaren eta lana egiteko moduaren egokitzapena beharrezkoa dela aurrera egiteko». Egokitzapen horien artean, herriko eragileen indarrak batzearen legoke.

Beraz, behar horren lehendabiziko pausoa litzateke merkatarik elkarrekin egiteko dutena, izan ere, ostalaritza eta zerbitzuak ere batzea da euren helburua eta nahia. «Indarrak batzearen etekinak herri bizi eta atsegina izatea lortuko dugu». Bestalde, diotenaren arabera, «Tolosak betidanik izan du nortasuna edo izan da erreferente merkataritzari dagokionean,

baina hori horrela da, merkatariek euren lana sustatzeko, berritzeko eta egokitzeko egin izan duten lanagatik; beraz, guk ere bide horretatik jo beharko genuke, sendoago izateko eta beste formulekin lehiatu ahal izateko».

Aisia eta merkataritza

Merkatariek azaldu dutenez, «ideiak aldatuz eta berrituz doaz, eta gaur egun gizarteak aisia erosketekin eta entretenimenduari buruz batzen du». Hala, mertalgune handiak jartzen dituzte aisia eta saltokiak batzearen adibide moduan; «Guk ere hori guztia eskaini dezakegu gure indarrak batzen baditugu, eta horrela erosketak egiteko eta aisirako leku egokia izango dugu, hau da, Tolosa».

Hori guztia posible egiteko, or-

» KRONOLOGIA

- **1980.** Gipuzkoan lehenetarikoa izan zen merkatarik elkarrekin sortu zen Tolosan, Igarondo izenarekin.
- **2005.** Alde Zaharra Dendak elkarrekin sortu zen Igarondo elkarrekin egiteko eta helburu berdinekin. Alde Zaharreko saltoki ugari batu ziren.
- **2006.** Komertzio Foroa sortu zen, merkatarien eta Udalaren artean merkataritza sustatzeko.
- **2010.** 'Tolosa & Co' izena du Tolosako merkataritzak.

dea, merkatariek beharrezko ikusten dute udaletxearen eta erakundearen parte-hartzea, beraz, deia ere luzatzen diete, euren egitasmoetan parte hartu eta lagundu dezaten.

Zumalakarregi kalea oinezko egiteko obrekin hasiko dira

Azpiegiturak »

Asteazkenean hasiko dira lanekin; lau hilabete iraungo dute, eta bi fasetan egingo dituzte.

ERREDAKZIOA

Datorren asteazkenean, hilaren 19an, hasiko dira Zumalakarregi kalea oinezko bihurtzeko obrekin. Euri-uren sarea, ur beltzen sarea, hornitzeko sarea eta argiteriaren

sarea berrituko dute, zuhaitz berriak jarriko dituzte, paperontziak eta bolardoak jarriko dituzte ibilgailuek oinezkoak errespetatu dezaten eta kaleko altzariak berrituko dituzte.

Obrak amaitzen dituztenean, kalea erdi-oinezkoena izango da, eta ibilgailuek zirkulazioaren noranzkoaren ezkerreko aldean aparkatu ahal izango dute soilik.

Obrek lau hilabete iraungo dutela jakinarazi dute Udaletik, eta bi fasetan egingo dituzte. Lehendabi-

zi Triangulotik garajeen sarreraraino doan zatia egingo dute, eta hori bukatzen dutenean garajeen sarreratik Zubiberriraino doan zatirekin hasiko dira.

Lehen fasean, ibilgailuek Zubiberria-Nafarroa etorbideak sartu eta atera beharko dute, eta debekatuta egongo da ibaiaren aldean aparkatzea. Oinezkoek, berriz, Trianguloko pasadizoan edo atzeko aldean erabiliko beharko dute kale honetara sartu edo bertatik ateratzeko.

Bestalde, bigarren fasean, ibilgailuek Triangulo aldetik sartu eta atera ahalko dira. Karga lanak egiteko aukera eta oinezkoen pasabidea bermatuta egongo direla adierazi dute, ezkerreko aldean —erakinen aldean— hain zuzen ere.

Taxilarietako dagokienez, kale honetan jarraituko dutela obrek iraunten dituen bitartean azaldu dute Udaletik.

Ohiko geralekuak izango dituzte autobusek

Gizartea » Astelehenetik aurrera lehengo lekuetan geratuko dira autobusak; ordutegiak geralekuetan jarriko dituzte.

ERREDAKZIOA

Herri barruko autobusak eta ibilbide motzeko eta luzeko herri arteko autobusak lehengo edo ohiko geralekuak erabiltzen hasiko dira datorren astelehenetik, hilaren 17tik, aurrera. Kolektorearen obregatik, aldatu beharra izan ziren, baina, bukatu dituztenez lehenengokoraitzuliko dituzte.

Hala, hiribusak ibilbide hau egingo du: Rondilla kalea (Musika Eskola) - San Frantzisko pasealekua - Berazubi auzoa - Iurre auzoa - Usabal auzoa - Amartz auzoa - San Blas auzoa - Bizkaia kalea - Kondeaneko aldapa - Asuncion

klinika - J.A. Irazusta pasealekua - Trinkete plaza - Rondilla kalea (Musika Eskola).

Donostiara joaten den autobusak, berriz, ibilbide hau egingo du: Zezen-plaza - Nafarroa etorbidea - Santa Klara - J.A. Irazusta - Larramendi - Autobidea. Donostiatik etortzen denak, ondorengo bidea egingo du: Larramendi - Rondilla (Musika Eskola) - San Frantzisko pasealekua - Pedro Tolosa - Zezen-plaza.

Ibilbide luzeko autobusek —Bilbo, Madril, Bartzelona, Vigo, Valentzia edota Extremadurarako bidea egiten dutenak— Rondillakalean (Musika Eskola aurreko geralekua) hartuko dituzte bidaiariak, eta utzi, berriz, J.A. Irazustapasealekuaren (biala) hasieran dagoen geralekuan.

Autobus zerbitzu bakoitzak bere geralekuetan izango ditu ordutegiak.

Iragarki laburrak

ALOKAIRUAN

■ **Tolosa.** Apartamentua alokagai, Tolosako Alde Zaharrean. Etxe berria, igogailua, berogailua eta sukaldea hornitua. 665 70 93 80.

BESTERIK

■ **Txakurkumea.** Txakurkumeak oparitzen dira. Interesatuak dei dezatela 618 25 49 71 telefono zenbakira.

Eskualdeko herri gehienetan gaur ospatuko dute San Isidro Eguna

Gizartea » Alkizan atzo hasi ziren ekitaldiak. Txikiak Baserritarren Eguna ginkana batekin ospatu zuten.

ASIER IMAZ

Baserritarren Eguna ospatzen atzo hasi ziren Alkizan. Eskualdeko hainbat herritan San Isidro Eguna gaur ospatuko dute.



Bizikleta gainean ikuskizun polita eskaini zuten txikiak Alkizan. A. IMAZ

Alkizan haurrak protagonista

Arratsaldean ginkana batean parte hartu zuten herrira gerturatu ziren haurrek. Bizikleta gainean ibili ziren helduek jarritako oztopoak gainditu nahian. Ikuskizun polita eskaini zuten txikiak. Ondoren

merienda egin zuten. Bestalde, 19:30ean, Alkizako Frontenis Txapelketako partidak jokatzekoak ziren, 3. eta 4. postuak hain zuten

ere. Emakumezkoen eta gizonezkoen mailako bi partida jokatu ziren beraz. Gaur, 16:00etan ekingo diote ospakizumei.

» SAN ISIDRO EGUNEN EGITARAUA

Amasa

San Isidro Eguna, gaur

- **10:30ean.** Meza Tourseko Martin Deunaren elizan.
- **12:15ean.** Arientzako Kanpajoleak Eskolako kanpajoleak.
- **Ondoren.** Giza Proba, Orioko Heldu taldea eta Aitzondo-Oarso taldearen artean.
- **14:00etan.** Bazkaria Iturri Goxo jatetxean.
- **20:30ean.** Aferia Uxo Toki Elkartearen.
- **Egun osoan.** Zabale eta Larrañaga trikitilariak eta Lopetegi eta Larrañaga bertsolariak.

Asteasu

San Isidro Eguna, gaur

- **11:00etan.** Meza.
- **13:00etan.** Erakustaldia proba-lekuan: Zaldia eta Idi pareak.

- **14:00etan.** Bazkaria egingo dute Sarasola Sagardotegian eta Amets Arzallus eta Julio Soto bertsolariak izango dituzte lagun.

Albiztur

San Isidro Eguna, gaur

- **21:00etan.** Segoretxe-berri jatetxean aferia.

Alkiza

San Isidro Eguna, gaur

- **16:00etan.** Kurpil lasterketa, 12 urtetik beherakoentzat.
- **18:00etan.** III. Frontenis Txapelketako finalak.
- **20:30ean.** San Isidro aferia, Ostatu Jatetxean.
- **Bihar, hilak 16**
- **08:00etan.** Mendi Martxa mundiala (Gazumetik buelta) egingo dute.

- **14:00etan.** Fronteniseko bazkaria irekia Ostatu Jatetxean izango da. (Handien menuak, 15 euro eta txikien menuak 10 euro balioko du).

- **16:30ean.** I. Banakako San Isidro Mus Txapelketa. Izena ematea: 2 euro. Sariak: arkumea eta bi untxi lehen bi bikoteentzat.
- **Aferia.** Ostatu Jatetxean.

Berastegi

San Isidro Eguna, gaur

- **12:45ean.** Prozesioa txistulari-kin udaletxetik, San Martin elizara.
- **13:00etan.** Meza eta ondoren, dantzariak.
- **13:45ean.** Bazkaria Arregi Jatetxean.
- **17:00etan.** Gazteen antzerkia eta haurren bertsoak, eskolako gimnasioan.



Iragan igandean Tolosako zubietan barrena ibili ziren. RICHARD

Berdintasun Astea «ontzat emateko modukoa» izan da

Tolosa » Berdinbide elkarteak aurrera begira lanean jarraitzeko asmoa azaldu du; ikastetxeetan inkesta bat egingo dute.

A. IMAZ

Iragan igandean amaitu zen Berdintasunaren Aldeko I. Astea. Berdinbide elkarteak kideek, antolatzailak, jende gehiago joatea nahi baldin bazuten ere, ekimena oro har ondo joan dela azaldu dute: «Hitzaldia, film emanaldia eta ibilaldia antolatu genituen. Egia esan jende asko ez zen joan baina gure helburuak kalean azaldu ditugu».

Joxe Mari Arakama, elkarteak kideekin batera, antolatzaila lanean ibili da. Bere esanetan, «berdintasunaren alde egiteak, gure helburuak plazaratzeko eta aurpegia emateak, gizonago egiten gaitu». Ondorioz, «ontzat emateko moduko» Astea izan dela azaldu du: «Besteak beste, gure izena kalean zabaldu dugu: Berdinbide. Jendeak badaki berdintasunaren alde

talde bat lanean ari dela». Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko zubiak gainditzeko, Berdinbidek iragan igandean ibilaldi bat antolatu zuen Tolosan barrena. Besteak beste, herriko bederatzizubi zeharkatu zituzten. Arakamaren esanetan, «alde batetik bestera igarotze horrekin, Tolosako leku guztietan berdintasuna nahi dugula irudikatu genuen».

Aurrera begira, hezkuntzan

Berdinbide dozentza bat lagunek osatzen dute, baina atek zabalik dituzte. Hau da, elkartearen parte hartu nahi duenak eurekin harremanetan jartzea nahikoa du.

Elkartea arlo desberdinetan banaturik dago eta horietako bat hezkuntza da. Etorrizunari begira, hurrengo ekimena mundu honetarako kokatu dute. «Inkesta bat egiteko asmoa dugu ikastetxeetan. Tutoresarekin edo irakasleekin izaten diren bileretara gizonzakoak, emakumezkoak edo bikoteak joaten diren jakin nahi dugu. Ondoren, datu guztiak bildu eta lantxo bat egiteko asmoa dugu».



Bidegoianera iritsi da uraren gaia

ESKOLAKO AGENDA 21 » Eskualdeko hainbat herritan bezala, atzo ikasleak Bidegoiango udaletxera joan ziren urte guztian zehar egin duten lana aurkeztera. Udala

ordezkariekin bildu ziren bertan eta ikasleek herriko uraren egoera azaldu zieten. Ibarren hilaren 17ean, ikasleek gauza bera egingo dute 10:00etan. A. B.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

E **Elkarrizketa**

JON ESANDI › Magoa

Irura › Gaur 18:00etan, 13 urte besterik ez dituen mago gaztea, herritarren aurrera aterako da. Irurako Kultur Astearen baitan, haurrentzako ikuskizuna eskainiko du.

ENERITZ MAIZ

Jon Esandi (1996, Irura) irurar gaztea, Jon Magic bezala ezagutua, txiki txikitatik sartu zen magiaren munduan. 13 urte baino ez dituen arren, dagoeneko gai da jendaurrera irten eta magia ikuskizuna eskaintzeko.

Nolatan sartu zinen magiaren munduan?

Ni oso txikitatik hasi nintzen magia egiten. Bost urte nituenetik edo, jostailu dendetan oso sinpleak ziren magiak erosten nituen. Hamar urte betetzean, magia kanpamentu batera joan nintzen. Bilbo mago batekin aritu nintzen eta bertan magia gehiago ikasi nuen. Azken hiru urte hauetan udaran bertan izan naiz. Eta gero nire kabuz, internet bidez, liburuak erositu eta, magia asko ikasi dut.

Eta zein mago izan duzu maisu?

Oliber magoa izan da. Berarekin asko ikasi dut.

Zure adineko haurrekin egon zara kanpamentuan?

Bai, gutxi gorabehera nire adinekoak dira baina ni bezala magia egiten duten haur gutxi daude. Haur asko kanpamentu batera joan eta zerbait egiteagatik joaten dira. Magia gustatzen zaielako joaten dira baina magia egitera gutxi.

Eta zer nolako kanpamentua da?

Goizez magia egiten eta arratsaldetan begiraleekin jokoak egiten ibiltzen gara. Baina goiz guztia magia ikasten pasatzen dugu. Hiru urte horietan oso ondo pasa dut.

Eta aurten berri zioatekoa zara?

Aurten ez. Magoarekin hitz egiten aritu naiz eta aurten ere ia urteroko gauza berdina emango ditu eta nik, ia ez dut ezer berri ikasiko. Orduan, aurten ez du merezi kanpamentura joateak.

Eta beste zerbait pentsatu duzu?

Bai. Raul Alegria magoaren eskola bat dago Santanderren eta oso ona da. Udan eskola horretara joatea pentsatuta daukat.

Erraza izan al da magiaren munduan sartu eta ikastea?

Erraza ez da ezer. Askotan esateko behar da dena eta jendearen aurrean aurkeztu baino lehen, askotan egin behar da. Oso ondo aterata, jendearen aurrean ezin da egin.

Ordu asko eskatzen du?

Bai, asko. Magia bat egiteko eta segun nolakoa den ere, hila bate bat edo hiru behar dira.

Hain gaztea izan eta dagoeneko gai zara jendaurrera airtzeko. Nolako da esperientzia?

Nik gogoia neukan. Etxean baka-



L. TERRADILLOS

«Erraza ez da ezer; dena ongi entseatu behar da jendaurrera ateratzeko»

rik egitea baino askoz hobea da jendaurrera egitea. Gainera jendeari gustatu egiten zaiola ikusten duzu eta zu ere poztu egiten zara.

Zer moduz sentitzen zara zeu bakarrik jendaurrera ateratzean?

Normalean oso erantzun ona jasotzen dut. Ni oso ondo sentitzen naiz jendearen aurrean magia egiten dudanean. Beraie ere gustatzen zaiela ikusten dut eta.

Gaur herritarren aurrean ariko zara. Urduri zaude?

Ez. Beste tokietan bezala da. Gutxi gorabehera berdina da. Hemen egiteko esan zidaten eta beste to-

kietan bezala egingo dut.

Inoiz gertatuko zitzaizun jendaurrera atera eta magiaren bat gaizki ateratzea?

Bai. Hori askotan pasa zait. Ez zara oso ongi sentitzen zuk badakizulako gaizki atera zaizula. Baina jendea berdina txalotzen du eta azkenean ez da ezer pasatzen.

Haurrek ala helduek ematen dute erantzun hobea?

Normalean umeek ematen dute. Gehiago gustatzen du eta gehiago disfrutatzen dute magia ikusten. Sinistu egiten dute. Zerbait harriarria dela ikusten dute. Hel-

duei ere bai, baina umeek gehiago. **Zein estilotako magiak egiten dituzu?**

Oso zabal da. Magia batez ere umeentzat egiten dut baina helduentzat ere manipulazioa egiten dut. Manipulazioa, kartak manipulatzea da. Oso zaila da eta hila beteak behar dira prestatzen. Hau haurrek ez dute ulertzen eta helduentzako bakarrik da. Eta umeek begira, animaliekin eta egiten saiatzen naiz, eta batez ere, beraiek parte hartzeko moduak izateak. Bestela aspertu egiten dira eta nire ustez, beraiek parte hartzea oso

garrantzitsua da.

Errepertorio zabal daukazu?

Magia asko dakizkit eta denbora askoko saioa egin dezaket baina normalean ordubete inguruko ikuskizunak egiten ditut. Baina gauza pila bat dakizkit.

Eta zenbat urte dituzu?

13 urte dauzkak.

Eta 13 urterekin guzti hau jakitea nola da posible. Jendea harrituta geratuko da ezta?

Bueno, denbora asko sartuta eta suertea eduki dut. Eta bai, jendea harrituta geratzen da 13 urte ditu-

«Hamar urte betetzean magia kanpamentu batera joan nintzen. Hiru urtetan asko ikasi dut»

«Nire asmoa magia egiten jarraitzea da eta deitzen didaten lekuetara joango naiz»

dala jakitean.

Etorkizunean mago izan nahiko zenuke?

Magiaren munduan jarraituko dut. Ez naiz magiaz biziko baina magia beti edukiko dut hobby bezala. Ez dut uste magiaz biziko naizenik. Oso zaila eta konplikatu da. **Zein mago duzu gustukoena edo zeini jarraitzen diozu?** Eredua bezala hasieran Oliber mago izan nuen eta asko lagundu zidan. Gero internet bidez, mago asko ikusten ditut eta horrek ere asko laguntzen dit. Eta beraien gauzak ere egiten ditut.

Nola moldatzen zara ikasketak eta magia, aurrera eramateko?

Bani oso ondo moldatzen naiz. Lehenengo ikasketak dira eta gero magia, baina denbora ematen dit bi gauzak egiteko eta gainera ondo. **Gurasoen laguntza ezinbestekoa izango duzu ezta?**

Bai, bai. Beraiek material asko erosten didate baina nik ere, nire diruarekin gauza asko erosi ditut. Baina bai, material asko erosi didate eta hasieran asko lagundu didate. Gauzak leku batetik bestera eramateko ere beraien laguntza behar dut.

Herriz herri ibili nahiko zenuke zure ikuskizuna erakusten?

Nire asmoa magia egiten jarraitzea da eta deitzen didaten lekuetara joango naiz. Herriz herriz? Ez litzateke gaizki egongo.

Magia munduari lotuta, zer gustatuko litzaizuke?

Ba, nik ideiak pentsatuta dauzkak. Las Vegasera joan nahiko nuke mago profesionalak ikustera baina hori oraindik oso urrutu geratzen da.

Eta inork zure berri izan edo harremanetan jarri nahiko balu, nola egin beharko luke?

Internet bidez, www.palimpalem.com/6/jonmagic helbidean ikus dezake nor naizen eta nirekin harremanetan jartzeko aukera

Internet modu egokian erabiltzeko Barnetegi Teknologikoa familientzat



Interneten erabilpen egokiari buruzko ezagutza jaso dute guraso eta ikasleek. A.BELAUZARAN

Bidegoian » Interneten eta teknologia berrien inguruko zalantza, arrisku eta onurak, landu dituzte 6 guraso eta 6 ikasleek.

AGURTZANE BELAUZARAN

«Barnetegi Teknologikoa», maiatzaren 17a Internet Eguna dela aitzakia hartuta antolatu du Eusko Jaurlaritzak. Barnetegi hau, Bidegoiango Iriarte Jauregian egin da, artean, Eibarko San Andres ikastetxeko 11-12 urte bitarteko 6 ikasle, hauen gurasoak eta interneten adituak diren irakasleak izan dira.

Bi eguneko barnetegi honen helburua Javier Mugica antolatzailaren esanetan «internetek ematen dituen aukerak ezagutaraztea da. Internet eta teknologiak, bitarteko bat dira eta hezkuntza sisteman ongi erabiliz gero, aberasgarriak dira ikaslearentzako». Hezkuntza prozesuan beharrezkotzat jo du teknologiaren erabilpen egokia antolatzailak.

Teknologia berrien onurak azaltzeko, bakoitzak bere ordenagailua izan du eta irakasleek arbel digitalerik eman dizkie azalpenak. Ikasleek eta gurasoek, liburu elektronikoak erabiltzen eta bide batez, internetetik liburuak jaisten ikasi dute. Musika eskuratzeko aukera izan dute. Mugikorra bezain txikia den aparatu elektronikorekin, Bartzelonako kaleetan paseatu dute. *Google map*-en ere nabigatu dute, munduan zehar. Sare sozialetan ere sartu dira beste hainbat aktibitateen artean.

Internetek dituen onura eta

abantailak, jolas moduan ikasi dituzte guraso eta ikasleek antolatzailaren esanetan.

Familiei zuzendutako prestakuntza

Barnetegi berezia da aurtengoa, lehenengo aldiz familiak baititu ardatz. Beñat Gurmendi irakasleak adierazi duenez «orain arte emakume eta helduei zuzendu diegu prestakuntza, baina familietan hutsune bat dagoela konturatu gara, horregatik ari dira gurasoak eta ikasleak prestakuntza batera hartzen».

Antolatzaileen ustez, «gurasoek inoiz erabili ez dituzten tresnak erabiltzen dituzte seme-alabek. Eredu ezezaguna da gurasoen zatitza eta aldi berean gurasoei dagokionez heziketan neurriak hartzea». Hau dela eta, sare sozialen erabilpenari buruzko informazioa jaso dute, irakaslearen eskutik baita seme-alabenetik ere.

Honela gurasoak sare sozialetan hartu dute parte; *facebook*, *twenty* edota *habborren* sartu dira seme-alabekin batera eta hauek, zertarako eta nola erabiltzen duten erakutsi diete irakaslearen aurrean.

Beñat Gurmendi irakasleak «gurasoek sare sozialei, beldurra izatea» normala dela aipatu du «segurtasun falta honek askotan haurrei sare hauetan sartzea debekatzen die» eta irakaslearen ustez «hau ez da egokiena». Barnetegi honen helburua «beldur hauek desagertzera da, gurasoak, seme-alabek zergatik eta zertarako erabiltzen duten internet jakitea eta gazteek internet modu egoki bate-

an erabiltzea da» irakaslearen esanetan.

Sare sozialen arrisku eta abantailak

Sare sozialen erabilpenak izan dituzketen arriskuak ekiditeko bide bat jarri die irakasleak eta ondoren gomendioak eman dizkie; gako pertsonala inori ez erakusteko, familiari buruzko eta norberari buruzko informazioa ezezagunei ez emateko, ezezagunekin ez hitz egiteko eta norbaitek beraiengana jokoera arraroren bat sumatzean, gurasoekin hitz egiteko esan die irakasleak.

Irakaslearen esanetan «kontzientziarekin erabiltzea da kontua».

Gurasoek eta ikasleek ikasitakoarekin «oso gustura» daudela aipatu dute. Antxon Gutierrez gurasoaren ustez «gurasoek lan hezitzailea egin behar dugu internetekin» eta bi egun hauetan ikasitakoa azpimarratu du: «zalantza asko argitu dizkit irakasleak eta baita semeak ere sare sozialen erabilpenaren inguruan».

Eibarko 6 gazte hauek ere ikasitakoarekin eta tokiarekin «oso pozik» daudela esan dute. «Bidegoian non zegoen ez genekien, interneten sartu ginen informazioa lortzeko» azaldu du Ander Gutierrezek. Barnetegian, «gurasoek askotan lagundu diegu ordenagailuekin» aipatu dute seiek.

Altxorraren bila jolasarekin emango diote amaiera esperientziari. Pistak GPSarekin aurkituko dituzte eta altxorra aurkitzen duenak, liburu digitala eramango du.



Azken lana eskuetan duela Maite Gurrutxaga. A.BELAUZARAN

'Ipurtargiak paradisuari' ilustratu du Maite Gurrutxagak

Amezketak » Poesia eta haur eta gazte literaturako liburuak ilustratzen ditu Maite Gurrutxaga amezketarrak.

A.BELAUZARAN

«Mundua mundu izaten hasi zen lehen egunetik, animaliak norgehiagoka hasi ziren munduaren jabe zirelakoan. Nor handiago, nor azkarrago, nor ederrago, nor indartsuago... Adan eta Eba agertu ziren arte, orduan iskanbilak bukatu ziren haien artean», hauxe «Ipurtargiak Paradisuari» liburuak kontatzen duena. Maria Asun Landak jarri dizkio letrak historiari, ilustrazio lanak amezketatik etorri dira, Maite Gurrutxagaren eskutatik.

Koloretako arkatzak, normalak eta guaix koloreak erabili ditu Maite, historia ilustratzeko. Eginda-

ko lanarekin gustora geratu dela aitortu du. «Teknika mixtoa deritzana erabili dut. Guaix koloreak nahastuz, tonalitate asko lortu ditut. Azken batean, hitzak ilustrazioa behar du haur literaturan. Biak osagarria dira ipuin bilduman».

Haur literatura eta poesia

Joseba Sarrionaindiaren *Gau ilunekoak* ipuin liburua 2008an ilustratu zuenetik, poesia eta haur literaturako liburuei koloreak eta irudiak jarri dabil Gurrutxaga. Karlos Linazasoreren *Zein beste mundukoak* gazteentzako poesia liburua- ren ilustrazioak bereak dira. Bere anaia idatzi eta berak ilustratu duen *Alex nire munstro langun on* haurrentzako liburua ere Etxepare saria irabazi berri dute.

Bilbon Arte Ederretako ikasketak egin ostean, Bartzelonan Ilustrazioa ikasi zuen.



«Ustelkeriaren aurka» kalean

TOLOSA » Voith Gorostidiko auziaren inguruan asteazkenean hitzaldia eman zuten Hektor Espin arkitektoak eta Aitor Iztueta hirigintzako letratuak, 8 urteko *lotsagabekeria* izenpean. Atzo, ezker abertzaleak elkarretaratze deialdia egin zuen udaletxe aurrean, *Tolosako Udalean ustelkeriarik ez* lelopean. A.BELAUZARAN

Zahartzaro duinaren aldeko borroka

Tolosa » Zahartzaro Duinaren Aldeko plataformako kideek Alondegia zentro berriaren inguruan hitz egin dute.

REBEKA CALVO

Tolosako Zahartzaro Duinaren Aldeko plataformako kideek «haserre eta triste» daudela onartzen dute, Alondegia Tolosa adineko-entzako asistentzia zentroa egite-rakoan «aukera paregabea galdu» dela baitiote.

Abiapuntuztat, hala ere, zerbat positiboa ere nabarmendu dute, hau da, «guztzen artean egindako lanari esker gerontologiko berri bat izango dela Tolosan» eta «honek Foru Aldundirik zehazten dituen plaza kopuru eta baldintza onargarriak» izango dituela, hau da, Gizarte Zerbitzuen Mapa deritzona betekoa duela.

Aipatu bezala, dena den, «haserre eta triste» daude batez ere, izan ere, «zerbitzu publiko bat pribatizatu dute berriz ere» eta ondorioz, zerbitzuak hobetzeko «aukera paregabea» galdu da. «Kudeaketa pribatuan badakigu zein den helburua, etekin ekonomikoa lortzea. Eta nola lortzen da etekin hori? zerbitzua okerragoa edota zerbitzu gutxiago emanda, esaterako», azaldu dute. Honekin lotuta, udal-letxearen «borondate eza» ere oso garrantzitsua da plataformako kideentzat, «honekin lotuta dagoe-larik herritarren ekarpenak ez dituztela ia kontutan hartu».

«Oinarrizko akatsak»

Pasa den astean iragarri moduan, Zahartzaro Duinaren Aldeko plataformako kideek Tolosako Udalarekin zeukaten harremana bertan behera utzi dute. Eta horixe izan zen pasa den larunbatean eginiko batzarrean bertaratu zirenei argitutako puntuetako bat.

Afera argitu aldera batzarrean proiektu berriak dituen «oinarrizko akatsak» nabarmendu zituzten. Bi dira akats horiek: gerontologikoak ez dituela egoiliarrek lehenesten, hau da, egoitza lehenik eta behin egoiliarrentzako izan behar-ko lukeela, eta ez dirudiela horrela izango denik; eta egoitzako azpie-

giturari erreparatuta egoiliarrek ezingo dutela herriarekin eta herritarrekin harremana izaten jarraitu, «gizartetik at» geratuko direla, nolabait, alegia.

Plataformaren proposamenak

Nahiz eta Udalak «kasurik ez egin», plataformako kideek euren proposamenen berri ematen jarraituko dutela ere nabarmendu dute. Hauek dira pasa den larunbateko batzarrean plazaratu zituzten lau proposamenak.

Batetik, egoiliarrek eraikinetik era erosoan atera ahal izateko babestutako zonalde bat izatea, hau da, euria egiten badu edo eguzkiak erruz jotzen badu, eraikinetik atera ahal izateko leku babestua izatea plazan bertan, eta hau eraginkorra izatea, «nahiko handia izatea, esaterako». Izan ere, plataformako kideen aburuz, egoiliarrek eraikinetik atera eta plazan eroso egotea «oso garrantzitsua» da, honek «herriko jendearerako harremana mantentzea ahalbidetzen duelako, bera eta bisitan doazanak haizea hartzea atera ahal izango direlako...».

Bigarrenik, hirugarren adinekoen taldeek euren jarduera egin ahal izateko eraikinean bertan lokalak edukitzea eskatzen dute, «hartara euren arteko harremana errazteko». «Honekin erresidentzia guetto-kaiola ez izatea ere lortu daiteke, hau da, 'kanpokoekin'»



Jende asko joan zen pasa den larunbatean eginiko batzarreara. R. CALVO

harremana izaten jarraitu ahal izango dute. Eraikina adineko pertsonentzat erreferentziala izatea ere ahalbidetu dezake... Aurreko lokalek, hala ere, 600 m² zituzten eta oraingoez 200 m²», zehaztu dute.

Hirugarrenik egoiliarren topagune izango den kafetegia edukitzea garrantzitsutzat jotzen dute, eta «horretarako, noski, egoiliarrek kafetegira zuzenean jaisteko modua izan behar dute. Eta ez orain planteatzen duten bezala... GPS-a beharko dute hara iristeko; buelta asko eman behar da eta igogailua behin baino gehiagotan hartu... gora igo, gero jaitsi, pasilloa zeharkatu, berriz ere igogailua hartu... eromena», diote.

Azkenik, egoitzaren gobernu-batzorde bat eratzea ere proposa-

zaten dute, non herritarrek egongo diren: «talde zabalak izan behar du, eragile askorekin, eta horrela egoitzaren kudeaketa eta kalitatea kontrolatu ahal izango dute».

Larunbateko batzarrean, lehen gela pilotua aurkezterakoan plataformako kideek atzemandako hainbat hutsuneren berri ere eman zuten: «Beraiek ere atzeman ez zituztenak ziren asko...», argitu dute harrituta. Lehenik eta behin eraikinean aisialdirako leku irekiak ez daudela esan dute, «5. solairuan bakarrik daude, oso urrutituta, eta ez daude babestuta, euria, haizea edo hotza egiten badu erabat babesgabe geratuko dira». Era berean, egumeko zentroak, «gau zentroa» dirudiela diote. Bi gela dira, eta batean «ez dago argi naturalik, kaiola bat ematen du».



Plataformako kideek euren proposamenen berri eman zieten bertaraturakoei, besteak beste. R. CALVO

LABek jangeletako «borrokarekin» jarraituko duela adierazi du

ERREDAKZIOA

LABek jakinarazi duenez, eskola publikoetako jangeletako langileen hitzarmenaren negoziaketan «patronalak negoziazioa atzera bota» du eta beraz, sindikatuak «borrokari» eutsiko dio.

Horiek horrela, haurrak jangeletara bidaltzen dituzten gurasoei zuzendutako mezua zabaldu nahi izan du sindikatuak, izan ere, «langileez gain, patronalaren jarrera ulertzen hau gurasoak ere pairatzen ari dira».

«Eskola jantokietako gatazkan urte bete baino gehiago egon eta gero, hitzarmen bat eta jantoki zerbitzuko hobekuntza lortzeko, 15 greba egun burutu eta gero, gatazkan amaiera ikusten hasiak ginen, enpresek negoziazioa egutegi bat eta negoziatorako proposamen bat aurkeztean», gogoratu du sindikatuak, lehenik eta behin. Proposamen hau eta izandako jarrerak aldaketa «positiboki» baloratu zuen langile kolektiboak eta LAB sindikatuak berak ere, «zeinek grebak izandako ondorioak ikusita, eta negoziazio normalizatu bat bilatzen ari dela ulertuta, greba gehiago ez deitza erabaki genuen, beti ere konpromiso hau eta egoera hau mantentzen zen bitartean».

Pasa den hilaren 4an, aldez, «enpresek aurkeztutako proposamena mahaitik kendu zuten eta unilateralki negoziazioa egutegia apurtu zuten. Mahaia ezer gabe, egutegia apurtuta eta 'hauengan' konfiantza baliogabea izatera igaroz».

«Kolektiboa erabili nahi dute»

Era berean, sindikatu abertzaleak «orain kolektiboa erabili nahi dutela» dio Eusko Jaurlaritzaren «proposamen eza» finantzatzeko, eta «hau jantokietako langileon eta zerbitzua erabiltzen duten haurren kontura» egiteko.

Horiek horrela, LABek «bentako arduragabeak izen abizenekin salatzea» eskatzen du, «jantoki zerbitzurako azpikontrataturiko catering enpresak eta ez langileak», zehaztu du.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Estiloa mantenduz, baina berrikuntzekin dator Alurr

Ibarra » Oinarriak mantendu arren, aldaketa ugari egin dituzte ikasturte honetan eta hauek taulartzeko prest daude.

ESTI EZEIZA

Aldaketez betetako ikasturtea izan da azken hau Alurr dantza taldearentzat. Zortzi urtetan, Edu Muñamendiarez gidari izan ostean, Aiert Beobide hartu zuen lekukoa joan den urte amaieran. Estiloa mantendu duten arren, eskolako emateko moduan, teknikan, dantzetan eta musikan berrikuntzak egin dituzte.

Zenbait musikaririk, gainera, musika egin dute dantza taldearentzat bereziki, taldeko arduradunak minimalistago eta lasaigo deskribatzen duena, hain zuzen. Emanaldi berriak eskaintzen ari dira jada, eta aldaketak jendeari aurkezten. Koreografietan, orain ere, dantza tradizionala oinarri izan arren, musikan aldaketak egon dira.

Ikasturtea amaitzear den honetan, Alurrekoak udarako prestatzen hasiak dira, hau baita, urteko sasoirik gogorrena. Datozen aste eta hilabeteetarako emanaldi ugari hitzartuta dituzte, eta honez gain, datorren ikasturtera begira ere hasi dira.

Emanaldiz betetako udaberria eta uda

Aipatu bezala, hurrengo asteetan ez dute atse denik izango Alurr dantza taldekoek. Hasteko, hilaren 22an, Tolosan, plaza Berrian izango dira, Ereitek antolatutako ekimen bati laguntzen eta Lizartzan, Kultur Astean. Bi egun beranduago berriz, Izaskun auzoko jaietan ikusi ahal izango dira.



Maiatzaren 29an ospatuko dute Alurr eta Dantzari Txiki eguna Ibarra. R. C.

Hil honetan bertan, bestalde, 29an, Dantzari Txiki Eguna eta Alurr eguna ospatuko dute Ibarra. Aurten bigarrenaldiz, bi jaialdiak batuko dituzte. Egun bat beranduago berriz, Anoetan, Dantzari Txiki egunean parte hartuko dute, eta aste bat beranduago, ekainaren 4an, herri horretan bertan egingo den ikasturte amaierako jaietan. Altonon ekainean ospatuko den Eskola Txiki egunean ere izango dira.

Taldeko arduradunaren hitzetan «Alurr dantza talde bat baino gehiago da, proiektu handiago bat da». Goi mailako dantza taldeaz gain, herri askotara zabaltzen den dantza eskola dago eta baita hauekin batera lan egiten duten musikariak, koreografoak eta interpretazio irakasleak ere, beste hainbat tartean.

Bestetik, Alurr-en helburuetako bat Ibarrik kanpo atera eta dantza eskualdera zabaltzea da. Hala, eskolako eskaintzen dituzten herrietan ere dantza suspertzea

eta bizia ematea bilatzen dute. Horregatik, eskualdeko hainbat herriko Dantzari Txiki egunean, nahiz festetan parte hartuko dute. Hala, udan, Berastegiko, Berrobioko, Ikaztegiako nahiz Lekeitioko jaietan eta Ibarriko Gazte Festetan emanaldi desberdinak eskainiko dituzte.

Ikuskizun berriak prestatzen

Urte eta erdi inguru igaro da *Sua* emanaldia Leidor antzokian aurkeztu zutenetik, eta ordutik, herriz herri hainbat emanaldi eskaini dituzte. Oraindik ere, eskaera handia duen ikuskizuna izan arren, ikasturtea hasi zenetik, beste berri bat ari dira prestatzen. Aurreikuspen arabera, azaroan aurkeztuko dute. Honenbestez, datozen hilabeteetan ikusi ahal izango da azken aldiz *Sua*.

Oraindik xehetasun handiegirik eman nahi ez badute ere, zenbait herritan, emanaldiko zatiak taularaten ari dira, jendeak egiten dion harrera ikusten joateko.

San Bartolome jaietako kartel iragarlea nahiz programa egiteko lehia

Ibarra » Kutura sailak bi lehiaketa jarri ditu martxan; bata helduei zuzenduta dago eta bigarrena, gaztetxoenera.

ERREDAKZIOA

Kultura sailak San Bartolomeetako festei begira, bi lehiaketa jarri ditu abian. Alde batetik, helduei zuzenduta, esku-programaren azalaren diseinu lehiaketa dago, eta bestetik, haurrentzat, jai egitaraurako Bozeto lehiaketa.

Esku-programarenean, 18 urteetik gorako ibarrek hartu ahal izango dute parte. Lanek 22x22 zentimetroko formatoa izan beharko dute. Hauek, argazkiak, marrazkiak nahiz margolanak izan daitezke, eta gaia librea da. Baina

hori bai, San Bartolomeak 2010 leloa agertu beharko du bertan. Honez gain, diseinuak Ibarriko armaria jarrita edota jartzeko lekua izan beharko du. Lanak aurkezteko epea ekainaren 25ean amaitzen da, hauek Kultur Etxera eraman behar dira. Irabazleak 300 euro eramango ditu.

Txikienezat ere aukera

2010eko jai egitaraurako marrazkiak aukeratzeko asmoz beste lehiaketa bat antolatu dute. Gaia hemen ere librea da eta edozein ibarrek nahiz bertako ikasleek hartu ahal izango du parte ekimean. Marrazkien formatua folio baten neurrikoa da, eta beraien antolaketa bertikala izango da. Lanak aurkezteko epea ekainaren 18an amaitzen da. Hauek ere Kultur Etxean utzi beharko dira.

Karrera, Lauburuko kapitaina omenduko dute

ERREDAKZIOA

Hitzordu garrantzitsua dute gaur Ibarriko Lauburu futbol taldekoek. Alde batetik, denboraldiko azken partida jokatu dute, eta bestetik, hainbat urtetan taldeko kapitain izan den Jon Ander Karrera agur esango diote, omenaldi txiki batekin.

Belabieta kiroldegian Burlataren aurka jokatu dute ibartrarek, 18:30etik aurrera. Oraingo honetan, deialdi berezi bat egiten diete Lauburukoek herritarrei ekitaldi berezi honetan parte hartzeke. Areto futboleko Euskal Federazioko lehendakaria ere bertan izango da.

Barriola-Olaizola I.a gaur, eta Bengoetxea VI.a-Irujo bihar

Leitza » Buruz buruko Txapelketako hirugarren kanporaketak jokatu dituzte; lehena Labriten eta bigarrena Atanon.

ERREDAKZIOA

Asteburu honetan, Abel Barriola eta Oinatz Bengoetxeak Buruz buruko Txapelketako hirugarren jardunaldia jokatu dute. Alde bateatik, gaur, Barriolak Olaizola I. izango du aurkari Iruñeako Labrit pilotalekuan. Bengoetxea VI.a berriz, Juan Martinez de Irujoren

aurka ariko da bihar Donostiako Atanon.

17:00etan hasiko da gaurko jaialdia. Lehendabizi, Leiza-Otxandorena bikotea Olaetxea-Ibai Zabalen aurka ariko da. Ondoren, Barriola, eta Olaizola I.aren arteko ikusi ahal izango da, eta azkenik, Mendizabal-Peñagarikano eta Diaz-Eskuderoaren arteko partida. Manomanistan bi partida jokatu ditu jada Barriolak, eta biak galdu. Ondorioz, oso zaila du finalerdietarako sailkatzea -Olaizola I.aren aurka bost tanto baino gutxiago jaso behar ditu, eta Irujok Bengoetxeari irabaz diezaioa itxaron.

Azken txapeldunaren kontrajokatuko du Bengoetxea VI.ak, 2008ko txapeldunak. Irujok 14 tanto egitea nahiko izango du zurrerrik finalerdietan sartzeko, baina irabazita finalerdietan sartuko da seguru. Herenegun, Donostiako Atano III. an aukeratu zituzten partida horretarako pilotak.

Leitza ez zen gustura geratu Irujok aukeraturako materialerkin, bere ustetan, honek bote handiegia egiten baitu.

Pilota aukeraketan adierazi zenez, bere jokoak egiten saiatuko da, eta irabazteko «aukera guztiak» dauzkala uste du.

Harpidedun egiten bazara aisialdirako **bonu bat opari**

Eroski Bidaiek eta Baskinbox etxean eskutik.

40 eskaintzatik gora aukeratzeko Euskal Herrian zehar.






Hotel bateko egonaldi bat, 2 lagunentzako bazkari bat edo abentura eta kirol ekitaldi bat izango duzu aukeran.

HARRERAKO ETXERAKO
943-30 43 45 • harpidetza@berria.info




Uztailaren 15ean
Tenerifeko astebeteko egonaldia zotz egingo dugu BERRIaren harpidedunen artean.
Eroski Bidaiek-en eskutik.

Orain, beste arrazoi bat BERRIaren harpidedun izateko.






Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Aisia

■ **Tolosa.** III. Txapin Festa 10:00etatik aurrera. 12:00etan baltsen jaitsiera egingo dute Ori ibaian.
■ **Anoeta.** Gaztetxearen 11. urte-muga 09:00etatik aurrera. Bazkaria ere izango dute.

Deialdia

■ **Anoeta.** Astelehenean, hilak 17, 19:00etan Udaltxean herriko festa antolatze biler egingo dute. Jai batzordeak herritar zein talde guztiak gonbidatzen ditu parte hartzera.

Antzerkia

■ **Tolosa.** Compagnie Teatrhepiquesen *Toutouie, una aventura submarina* Topic-en 18:00etan.

Dantza

■ **Tolosa.** Udaberri eta Ibi-ko dantza plaza Berrian 18:30ean.

Bertsolaritza

■ **Zizurkil.** Bertso jaialdia Otañoren omenez 18:30ean frontoian.

Musika

■ **Tolosa.** The Sparteensen kontzertua Bonberenean 22:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

A Agurrak



Zorionak!

Onea Artola Zabala (Alegia).

Gaur 7 urte. Garazi, Galder eta etxekoekin ondo pasa. Muxu bat.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak



Ibarrako Udalak argitu duenez, orain gutxi inauguratu dute Tichla herriko balio anitzeko zentroa. HITZA

Tichlako zentroa prest

Ibarra » Balio anitzeko zentroa berri inauguratu dutela argitu du Udalak; 1998tik dago senidetuta Saharako herri honekin.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Udalak argitu duenez Saharako Tichla hirian finantzatu duen balio anitzeko zentroa inauguratu dute. Ibarra 1998 urtetik dago senidetuta Tichla herriarekin.

«Zentroak lurralde honetan hauteman diren beharrian sozialei erantzuna emateko xedea du eta Saharako lurralde okupatuetan ezaugarri hauekin eraiki den lehena izan da. Besteak beste, kalitateko arreta eskainiko die herri horretako pertsona helduei», argitu du Udalak ohar baten bidez.

Jakinarazi dutenez, helburu sozialeko proiektu solidario bat sustatzeko erabakia iazko urte hasieran hartu zuten, Txelo Romeo Ibarrrako alkateak Euskadiko Fronte Polisarioko ordezkariak antolatutako bidaia instituzionalean parte hartu zuenean.

«Egonaldi honetan zehar lurralde okupatuetan bizi den gizarte errealtatearen diagnosi bat egin eta gabezia nagusiak aztertu ahal izan ziren, arazo hauei irtenbide bat eman ahal izateko», argitu du Udalak.

«Hirugarren adinekoentzako eta kultur jarduerak egiteko»

Inauguratu duten eraikinean «hirugarren adineko pertsonen arreta egingo dien eta kultur-jardueren garapenerako erabiliko diren areto ezberdinak» egongo dira. «Eguneko zentro eta kultur areto hauek

finantzatzeko 45.000 euroko kopurua, Ibarrako Udalak garapen bidean dauden herrialdeak diruz laguntzeko bideratzen duen aurrekontuaren %1etik lortu da, Misio Taldeak Ekuadorren eginiko ekintzekin gertatu den bezala», zehaztu dute.

«Saharan aurrera eramane den ekintza honekin errefuxiatu sahararren bizi baldintza kaskarrak hobetu nahi dira, euren biziraupena -ez guztiz baina bai neurri handi batean- laguntza humanitariotik datorrela kontutan izanik. Populazioaren %54, 12 urtetik beherako haurrek dira, eta %24, 15 urtetik beherako emakumezkoak dira. Populazio honen sentikortasunak okerrera egin du azken denboran, gutxitu egin delako elikadura eta osasunaren babesarekin lotutako paketeen bidalketa», gaineratu du Udalak.

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak: _____ • N A : _____

• Lanbidea: _____ • Jaioteguna: _____

• Helbidea: _____ • Herria: _____

• P, K: _____ • Tel.: _____

• Posta elektronikoa: _____

• Kontu zenbakia: _____

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza** info
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Asteunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko-hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza